





# Latina II

- BATXILERGOA
- LANBIDE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO  
BIKAIN TASUN  
CAMPUSA

CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2013ko UZTAILA

**LATINA II**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JULIO 2013

**LATÍN II**

***Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.***

***Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.***

Azterketa honek parte hauek ditu:

- Testuaren itzulpena: 0-5 puntu.
- 1. galdera: esaldi baten analisi sintaktikoa: 0-1 puntu.
- 2. galdera: hiru hitzen analisi morfoloikoa: 0-1 puntu.
- 3. galdera: lexikoa eta fonetika: 0-1 puntu.
- 4. galdera: latin-literatura: 0-1 puntu.
- 5. \*aldera: Erromaren ondarearen iraupena. Adierazitako obra irakurri izana frogatzea (0-0,5 puntu). Horretaz gain, gure hizkuntzetako erregistro jasoetan erabiltzen dugun latinezko esaldi bat eta esamolde juridiko bat itzultzea edo/eta horiei buruzko iruzkin labur bat egitea (0 – 0,5 puntu).

Hiztegia erabil daiteke.

***Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.***

***No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.***

Este examen consta de las siguiente partes:

- Traducción del texto, que se calificará de 0 a 5 puntos.
- Cuestión 1ª: análisis sintáctico de una frase: de 0 a 1 punto.
- Cuestión 2ª: análisis morfológico de tres palabras: de 0 a 1 punto.
- Cuestión 3ª: léxico y fonética: de 0 a 1 punto.
- Cuestión 4ª: Literatura latina: de 0 a 1 punto.
- Cuestión 5ª: Pervivencia del legado de Roma. Demostración de haber leído la obra señalada (de 0 a 0,50 puntos) y traducción o/y breve comentario de una locución latina usada en la lengua culta actual y de un aforismo jurídico latino vigente en la actualidad (de 0 a 0,50 puntos).

Se permitirá el uso de diccionario.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2013ko UZTAILA

LATINA II

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JULIO 2013

LATÍN II

## A AUKERA

*Salustiok dio gizakiek egiten dituzten jarduera probetxugarriak beren indar intelektual eta moraletik (virtus) datozela. Horregatik gaitzesten du atseginez betetako bizitza daraman jende askok eremu intelektual hori ez lantzea. Dena den, gizarteak ez du jende horren bizitza eta heriotza gogoratuko.*

Ea quae homines arant, navigant<sup>1)</sup>, aedificant parent virtuti<sup>2)</sup>. Sed multi mortales, dediti ventri<sup>3)</sup> atque somno, indocti incultique vitam, sicut peregrinantes, transierunt<sup>4)</sup>. Quibus<sup>5)</sup> corpus voluptati<sup>5)</sup>, anima oneri<sup>5)</sup> fuit. Eorum ego vitam mortemque pariter aestimo, quoniam de utraque siletur<sup>6)</sup>. (Sal., *De Coniurat. Catil.*, 2).

### Oharrak:

- 1) *Navigant*: Hemen aditz transitiboa, ='bereganatu itsas merkataritzaren bitartez'.
- 2) *Virtus, -tis*: hemen = 'gizakiaren indar intelektual eta morala'.
- 3) *Ventri: venter, -tris-etik* = 'jalekeria, sabelkeria'.
- 4) *Transierunt: transeo, transii, transitum*, aditz transitiboa (*transire vitam*).
- 5) *Quibus...voluptati...oneri fuit*: datibo bikoitzeko *sum* aditzaren eraketa: lehendabiziko datiboak interesatuta dagoen pertsonari erreparatzen dio (*quibus* = 'horientzat'); bigarren datiboak, berriz, zertarako funtzioa adierazten du (*voluptati,... oneri*) eta aditzak (*fuit* = 'balio zuen...')
- 6) *Siletur*: 3. pertsona, aditz pasibo inpersonala = 'isildu'.

### Galderak

1. Itzuli testua (hiztegia erabiliz). 5 puntu.
2. Egin ezazu "eorum ... siletur" esaldiaren analisi sintaktikoa. 1 puntu.
3. Egin ezazu *parent, virtuti* eta *dediti* hitzen analisi morfologikoa. 1 puntu.
4. Erantzun bi galdera hauetako bati bakarrik: 1 puntu.
  - a) Adierazi zein diren latinezko *aliquid (aliqui, -a, -od)* eta *legere (lego, -is, legere)* aditzetik terminoekin zerikusia duten gaztelaniazko terminoak (gaztelaniaren ondare lexikoari dagozkionak izan zein kultismoak izan), eta egin haiei buruzko iruzkin bat. Zer bilakaera fonetiko izan dute latinetik gaztelaniara pasatzean?
  - b) Adierazi euskarazko zein hitz ezagutzen dituzun latinezko *vindico, -are, -atum* eta *solacium, -ii* terminoekin zerikusia dutenak, eta egin haiei buruzko iruzkin bat.
5. Latindar alegia: Fedro. 1 puntu.
6. Erantzun a) galderari eta b) galderari.
  - a) Zer iruditu zaizu Plautoren *Epidiko* obra? Iritzia argudiatzean, eman itzazu xehetasun batzuk, frogatzeko obra irakurri duzula. 0,5 puntu.
  - b) Itzul itzazu honako latindar esaldiak, edo/eta egin ezazu haiei buruzko iruzkin labur bat: "*dura lex sed lex*" eta "*per capita*". 0,5 puntu.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2013ko UZTAILA

LATINA II

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JULIO 2013

LATÍN II

## B AUKERA

*Petreiok, Pompeioren Hispaniako legadoak, bere gudariak zein alderdiren alde jokatuko duten zalantzan daudela ikusten du. Hori dela eta, bere gudariei erregutzen die ez uzteko ez bera ezta Pompeio jenerala ere.*

Quibus rebus confectis, flens Petreius manipulos<sup>1)</sup> circumit militesque appellat et obsecrat neu<sup>2)</sup> se<sup>3)</sup> neu Pompeium, imperatorem suum, adversariis ad supplicium tradant. Postulat ut omnes iurent se<sup>4)</sup> non deserturos exercitum neque capturos consilium separatim a reliquis. (Caes., *De Bel. Civ.*, I, 76).

### Oharrak:

- 1) *Manipulos*: *manipulus*, *-i* = 'manipuloa, legioaren unitate taktikoa'.
- 2) *Neu...neu*: subjuntiboko ezezko esaldi konpletiboak irekitzen dituzten menperagailuak (= 'ez...ez... -t(z)eko').
- 3) *se*: izenordain honek aditz nagusien subjektuari erreparatzen dio, Petreiori hain zuzen ere.
- 4) *se*: akusatiboa, infinitibozko menpeko esaldi konpletiboen subjektua: *deserturos (esse)* eta *capturos (esse)*.

### Galderak

1. Itzuli testua (hiztegia erabiliz). 5 puntu.
2. Egin ezazu "*Quibus ... circumit*" esaldiaren analisi sintaktikoa. 1 puntu.
3. Egin ezazu *suum, omnes* eta *iurent* hitzen analisi morfologikoa. 1 puntu.
4. Erantzun bi galdera hauetako bati bakarrik: 1 puntu.
  - a) Adierazi zein diren latinezko *amarīco*, *-are* eta *littĕra*, *-ae* terminoekin zerikusia duten gaztelaniazko terminoak (gaztelaniaren ondare lexikoari dagozkionak izan zein kultismoak izan), eta egin haiei buruzko iruzkin bat. Zer bilakaera fonetiko izan dute latinetik gaztelaniara pasatzean?
  - b) Adierazi euskarazko zein hitz ezagutzen dituzun latinezko *balneum*, *-i* eta *abbas*, *-tis* terminoekin zerikusia dutenak, eta egin haiei buruzko iruzkin bat.
5. Epigrama eta satira: Martzial eta Juvenal. 1 puntu.
6. Erantzun a) galderari eta b) galderari.
  - a) Zer iruditu zaizu Plautoren *Epidiko* obra? Iritzia argudiatzean, eman itzazu xehetasun batzuk, frogatzeko obra irakurri duzula. 0,5 puntu.
  - b) Itzuli honako latindar esaldiak, edo/eta egin ezazu haiei buruzko iruzkin labur bat: "*placebo*" eta "*in dubio pro reo*". 0,5 puntu.



## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

---

### LATINA II

- 1) Latinezko testua gaztelaniara edo euskarara itzultzea, hiztegia erabiliz.
  - Gehienez, 5 puntu.
  - Hauek balioetsiko dira: latinezko testuaren edukia ulertzea, kontzeptuak xede-hizkuntzara itzultzeko gaitasuna eta latinen gramatika ezagutzea itzulpenak hori erakustea.
- 2) Proposatutako esaldiaren analisi sintaktikoa.
  - Gehienez, 1 puntu.
  - Esaldi osoaren egitura sintaktikoari buruzko eta esaldiko elementu bakoitzaren sintaxiari buruzko analisia egin behar da.
- 3) Adierazitako hitzen analisi morfologikoa
  - Gehienez, 1 puntu.
  - Kasuaren arabera, izen-jokoaren (kasua, numeroa, generoa) edo aditz-jokoaren (boza, modua, denbora, pertsona eta numeroa) hitz mota eta bereizgarriak zehaztu behar dira.
- 4) Lexikoari eta fonetikari buruzko galdera. Lexiko latindarraren gaztelaniarako edo euskararako bilakaeraren adibideak.
  - Gehienez, 1 puntu.
  - Aipatutako hitz kopurua eta, batez ere, kasu bakoitzari dagozkion lege fonetikoaren azalpena balioetsiko dira.
- 5) Literatura latindarraren historiari buruzko galdera.
  - Gehienez, 1 puntu.
  - Galderako literatura-generoa definitu behar du ikasleak, eta egile horri (edo horiei) buruz dakiena azaldu; batez ere, literatura-genero horri dagozkion obrei buruz jardun behar du.
- 6) a) Itzulitako obra latindar baten irakurketa.
  - Gehienez, 0,50 puntu.
  - Galderaren helburu bakarra da jakitea ea ikasleak ikasturte honetarako adierazitako obra Plautoren *Epídico* (Epidicus) irakurri duen. Baina, horretarako, obra benetan irakurri duen ala ez frogatzeko, behar adina datu eta xehetasun eman behar ditu ikasleak.b) Egungo hizkuntza jasoan erabiltzen diren latinezko lokuzioak eta latin juridikoaren esaldien eta esaeren zerrenda.
  - Gehienez, 0,50 puntu.
  - Egungo hizkuntza jasoan erabiltzen den lokuzioetako baten eta egun erabiltzen den latin juridikoaren esaldi baten itzulpena edo/eta iruzkin laburra eskatzen da.